



Barakaldoko gazte asanbladak jakinarazi digu, atzo urriak 14 Makala II gazetxeko sarraila kolaz boikotatua izan zela. Hau ez da gazetxeak eta gazte asanbladak jasan duten eraso bakarra: inaugurazioaren egunean municipalak agertu ziren bertan zeuden gazteei gazetxearen barruan bazkaltzera aginduz, 12 gazteren aurkako prozesu judizial bat zabalik dago usurpazio delitu bat egotzita (lokalaren barruan bilduta egoteagatik)... Gazteek ohartarazi dute errepresio eta eraso guztien gainetik beren lanarekin jarraituko dutela eta kultur eta aisialdi alternatibo bat sortzen segituko dutela.

Barakaldoko Gazte Asanbladaren prentsa oharra:

Barakaldoko Gazte Asanbladak gazteentzako eta gazteengatik lokal autogestionatu baten erabilpena martxan jarri zuenetik, erakunde, kolektibo eta udaletxearen partetik errepresioa eta hainbat eraso bizi izan ditu.

